

## Ruth Linazak hiru domina lortu ditu Munduko Sokatira Txapelketan

10. orrialdea

## San Josetako Bertso Saioa 18an

Uxue Alberdik, Miren Amurizak, Andoni Egañak eta Unai Iturriagak osotuko dabe aurtengo San Josetako Bertso Saioko kartela. Illart Gu-muziok egingo ditu gai-jartzaile lanak. Hitzordua hilaren 18an da, San Jose bezperan, arrastiko 19:00etan, Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Areatoan. 13. orrialdea



## Kolazinoko Mendi Eguna martiaren 24an izango da Bedian

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 292

2018ko martiaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## M-8ko mobilizazioak jentetsuak izan dira



Igorreko konzentrazioa.

Aurtengo martiaren 8a inflexino puntua izan da askoren ustez. Lehenengo aldiz egin da gurean greba feministea eta espero zana baino arrakastatsuagoa izan da.

**H**ori dala-eta, andrak kaleak goizetik gauera hartu ebezan gizon eta andren arteko bardintasun eza salatuteko, eta beste politika batzuk eskatzeko.

Arratian, Igorren batu ziran andrak goizean. Edade guztietako andrak. Ibilbide feminista handiko edadeko andrak eta gogor datozan gazteak. Han egon ziran Institutuko ikasleak eta sortu barri dan Orratzak gazteen talde feministea, barbarako. Gurean be jentetsua izan zan manifestazioa.

Arrastian Bilbora edo Gasteizera joan ziran asko. Eta uriburu bietan milaka andrak hartu ebezan kaleak. Bilbon 60.000k iturri ofizialen araber.

Egun historiko haren lekuko, hainbat argazki. 5. orrialdea

### ZEBERIO

## Onartu dira kontuak

Zeberio 2018ko aurrekontuak onartu dira EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz.

San Antonio ermitako lanak amaituteko dirua dago aurreikusita, Zeberio Museo Etnografikorako, Kultur Etxea, herriko denda eta udaletxearen fatxadak margozteko, besteak beste. Gainera, Telleriko aisialdirako gunea eta Santa Krutzeko landakoa berreskuratu gura ditu Udalak eta Sautuolabarrin zuzatzak landatuko ditue. Upon udalerriaren memoria historikoa berreskuratu eta mantenduteko asmoz, metrailadorahabia eta Burdin Hesiaren gainarako hondarrak seinalizetako lanak egiteko diru partidea dago aurrekontuetan. Zeberiozarrak egindako ekarpenak, beira kontenedorea eta bideen mantenimentuak be sartu dirala dinoe Udaletik. 7. orrialdea

### ARRATIA

## ANCKo Ferran Civit eta Ignasi Termes-eri alkarrizketea

Gure Esku Dagok (GED) konbidautu, Arratian egon ziran Ferran Civit, Esquerra Republicanako diputadua Kataluniako parlamentuan eta Ignasi Termes, Omnium Cultureko zuzendaritza batzordekoa. Biak Assemblée Nacional Catalana-n (ANC) egon ziran Kataluniako prozesuari hasikerea emoten. Esperientziak konpartidu, GEDk abiatutako prozesuagaz alderatu eta oingo momentuaren gaineko hausnarketea egin dabe BEGURAKO. 8. eta 9. orrialdeak



### AREATZA/IGORRE

## Laburbira Areatzan martiaren 24an eta Igorren 23an

Euskerazko zortzi film labur ikusi ahal izango dira Areatzan martiaren 24an eta Igorren aurreko egunean. *Ilunpetan, Night Shift, Higadurak, Ejecutor, Tazan, Areka, Kreba* eta *Zulo* dira hamabosgarren edizino honetan ikusi ahal izango diran filmak.

Laburbira zirkuitu ibiltaria Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dau; Arratian Zertu Kultur Elkartek Areatza eta Igorreko Udalen laguntzeagaz. 13. orrialdea





## ARRATIA KOLOREETAN

## JOKO-ALAI KIROL ELKARTEA: PELOTA ARLOA

Euskal Herriko Pelota Txapelketako finalak asteburu honetan jokatu dira (martiak 9, 10, 11). Han Joko-Alaiko bikote bi egon dira: Itsaso Larrinaga eta Maialen Landajo palan, eta Anton Erkiaga eta Maren Emaldi eskupelotan, bikote biak Kadete mailan. Etxarrin eta Aretan jokaturako finaletan, Joko-Alaik biak galdu ditu. Finalak irabazteko dirala esaten da eta holan hartuta, albistea hori izango litzateke, baina Joko-Alaitik beste irakurketa bat egin dogu: igazko eskupelota denporaldian, Beñat Etxeita eta Lander Erkiaga Euskal Herriko Txapelke-

tako aurrefinalerara heldu ziran eta aurtengo pelota denporaldian final bi jokatu doguz. Maila honetako pelotariak eukitea lujoa eta ohorea da edozein pelota alkarerentzat eta edozein herrirerentzat.

Zeanurin beti egon da eskupeletarako afizino handia, eta oin ikusten da jentearen artean ilusino handia sortu dala. Herriarteke Txapelketeagaz ametsetan. Euskal liga honetan, partidu oso onak ikusi dira Zeanuriko frontoian eta hori, guretzako ona da umeen artean kirol honetan afizinoa sortuteko. Beste aldetik, palan

oin dala bost bat urte hasi ginan neskakaz, Larrinaga eta Landajo benjaminak zirala. Urte honeetan frontoian zelan hasi diran ikustea eta Euskal Herriko final bat jokatu-ten egotea oso polita da.

Finala galdu egin dogula? Anton, Itsaso, Maren eta Maialeneri esan, euren ahaleginakaz lortutakoa gauza handia dala eta momentua disfrutau behar dogula, ia holango final askotan gagozan! Azkenik, eskerrak emon Zeanuriko afizinoari, beti gure pelotariak animetan egoten dalako.

**Joko-Alai Kirol Elkarte**



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Martiaren 12tik 18ra**

Rodriguez Martinez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya, Amorebieta-Etxano.

**Martiaren 19tik 25era**

Traver, Bedia, J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Melero, Amorebieta-Etxano.

**Martiaren 26tik aprilaren 2ra**

Zamalloa, Areatza, Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa, Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Ana Gometza, Francisco Kortabarria 2, Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arriorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Ane Rilo Gonzalez. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Illart Gumuzio.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa





## ZEURE BERBEA

### Agur eta gero arte

Berba honeekaz omenaldi txikitxo bat egin gura deusat nire koinata Begori. Gazte-gaztetatik ezagutzen neban Bego, neska gaztea, dotorea eta modernea zan. Arteako irakasle bezala eza-guna izan zan. Oso neska alaia eta hartu-emonetan oso zabala izandakoa.

Magisteritza ikasten nengoala, gaur egun nire senarra dan Rikardogaz hartu-emonen hasita neukan. Biok autobusean ginoizan, eta Begogaz topau ginan; berak be gure hartu-emonaren barri eukanez, berbetan hasi ginan, eta hortik aurrera familiakoak izan gara.

Nire mometu onak batera bizi izan doguz, eta momentu txarretan alkarrerri lagundu deusagu. Rikardogaz ezkondu eta semeak jaio ziranean, hor egoten zan ahal eban momentuak eurakaz pasetan. Astebarruan Bilbon egoten zan, eta astegoienetan Arteara (gurasoen etxera) etorten zanean, gustura egoten zan familiagaz, disfrutau egiten eban. Momentu zoragarriak bizi izan genduzan. Epoka hau oso ona

izan zan Begorentzat. Bilbon ikas-tetxean lan egiten eban, Bilboko lagunakaz urtetan eban eta bi-jetea gustuko ebanez, munduko leku asko ezetu ebazan.

Bizitzan epoka desbardinak eukiten eta pasetan doguz, eta itzelezko epoka baten ostean, Bego prejubilau egin zan, eta handik lasterreetan Begoren gaixotasuna agertu zan. Bere amaren eta neba Antonioren heriotzen ostean, bere gaixotasuna aurrerantza joan zan. Begok ezetuten ebazan bere gaixotasuna eta haren ondorioak. Hasikeran, gaixotasuna onartzen hasi zanean, bizitzako gauza onak gogoratzen ebazan, eta bizitza holan dala adierazo gura eban. Gaixotasuna sendaezina zan, eta horren ondorioz momentu tristeak pasau ebazan Begok. Gaixotasunean zehar bere ondoan izan dauz Bilboko lagunak, bere ahizta bezala zaindu daben zaintzaileak, eta etxekoetatik Begogaz gehien egon diranak; nire koinatea M<sup>a</sup> Karmen eta Rikardo bere neba.

Nik badakit Rikardok asko sufridu dauala bere arrebearen makaltasuna ikusita. Gabon aurretik oso makal egon zan Bego eta Rikardogaz eta biakaz batera

egon nizan momentuetan argi ikusi dot euren arteko maitasuna. Hainbat denpora emon dau Rikardok Bego laztantzen eta eskutik hartuta euren gauzak kontetan. Egia da neba-arrebak hartu-emon berezia izan dabela, eta Begorentzat pisu handia eukan Rikardok esaten ebanak.

Gaixotasunak preso izan dau Bego azken urteetan. Zezeilaren 17an, ordea, txoriak bezala hegoak zabaldu, eta zerurantz abiaturu zan; libre zan barrero.

Bego eleizkuzin bategaz agurtu genduan. Bertara hurbildu ziran herritarrak, ezagunak, lagun minak, Ibarrekolanda ikastetxeko lankideak... Familiakoak lasaitasuna igarri genduan etorritakoen berotasuna eta maitasuna sentidu ondoren. Begogaz pasautako momentuak beti bihotzean izango dodaz.

Gurasoak eta nebak maite izan dozuz, koinatak eta lobak bihotzean izan dozuz. Oin, heriotzeagaz, askatasuna lortu dozu. Zoriontasuna eta bakea benetan merezi dozuz. Mosu handi bat.

MERTXE EMALDI

## Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar heritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauze helbidea:

Zertu Kultur Elkarte  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Andra/andrazkoa



Andra eta andrazko berbak gero eta gitxiago entzuten doguz gure artean, sexu femininokoa dana adierazoteko (andrea/andraskoa, agoskatuta). Izen bi haren ordez, "emakume" eta "emakumezko" berbak nagusitu dira azken urteotan. Andra berbeak baina, aberastasun oso handia dau berba alkartuetan, esate baterako: andra-gizon(ak), andra-gazte...; kutsu matxista daukie, barriz, andra-behar(rak) edo andra-haize (hegoaldeko haize zoroa) berbak.

## ERETXIA



### JABI ZULUAGA

Jubiladua

## Pensinodunen mobilizazioak dirala-eta, hausnarketaren bat edo beste

Normalena da pensinoguztiak igotea KPIren arabera, erosteko ahalmena ez galtzeako eta Konstituzinoak ezartzen dauana beteteko (batzuentzat ikutu ezina dan Konstituzinoak, Espainiako gobernuak beteten ez dauanean izan ezik). 50. artikulua: "Botere publikoak, aldizka eguneratutako pensino egokien bidez, gitxieneko kaudimena bermatuko deutsee herritarrai zahartzaroen."

Kontuan izan behar da pensinoak eskubideak dirala eta egokiak (ez da holan, %46k hilean 700 euro baino gitxiago kobretan dau) eta nahikoak izan behar dira. Baina ez da holan; ez dira igoten edo %0,25 igoten dira, KPI baino askoz gitxiago, eta horrek erosteko ahalmena ikaragarri galtzea dakar.

Gobernuak dino dirurik ez dagoala, baina dirua sobran dago, lehentasunak definidu behar dira. Eta gobernuak lehentasuna emoten deutso bankuak erreskateteari, autopistak egiteari, NATOren aurrekontua handitzeari, eta abar. Bitartean jarraituten dau Hezkuntzan, osasunean, pensinoetan eta abar murrizketak egiten.

Gobernuak, pensinodunoi, hedabideetako berbalagun askoren laguntzeagaz bildurra sartu gura deusku. Izan be, bildurra abizari ederra da bankuak eta aseguruetxeak pensino pribadu planak saldu dagiezan. Guk geure indar guztiakaz defendidu behar do-

guz pensino duin eta publikoak; pensinoak eskubidea diralako, eta ezin diralako izan betikoen negozioa.

Pensino duinak izateko, Segurantzako Sozialeko legea aldatu egin behar da, pensinoak kotizazioen bidez pageteaz gainera, Estaduko Aurrekontu Orokorren bitartez osotu daitezkan, herrialde askotan egiten dan legea.

Zein izango da pensinoen etorkizuna 2019tik aurrera? Aurretik egindako murrizketak gehitu egingo jakie beste artazikada bat, jasangarritasun faktorea izenekoa, 2019ko urtailaren 1ean indarrean jarriko dana eta eragin handia izango dauana.

Pensino barriak, bizi-itxaropenari lotutako jasangarritasun faktorea aplikatutakoan, murrizketak automatikoa izango dabe, eta kalkulu batzuen arabera, %0,45 eta %0,75 bitarteko murrizketak izango da hasikeran; baina beste ikerketa batzuen arabera, murrizketak %2ra heldu daiteke. Neurri honerik beste neurri batzuk gehituko jakoz, erretiroa hartzeako edadea atzeratu, kotizazio oinarrien kalkulua igo eta errebalorizazioa ia gelditu, barbarako.

Belaunaldien arteko ekidate faktorea, jasangarritasun faktorearen atal bat da. Hau 2011 eta 2013ko pensinoen erreforman sartu zan 2019tik aurrera indarrean jarteko (politikariak eta hedabideak isilean gorde dabe). Neurri hau, tenporizadoredun lehergailu baten modukoa da eta pensinodunak estu hartuko ditu atzen urteotan erosteko ahalmen handia galdu dabelako.

Hau danau kontuan hartuta, pensinodunak (9,5 miloe lagun inguru) eta etorkizunean pensinonista izango diranak, gure eskubideak defendidutera kalera urte-tea beste aukerarik ez daukagu. Eta engainatzen ez ixtea, beste askotan gertatu jakun moduan, agintean dagoan gobernuak azenarioa erakutsi deuskunean, konformetako.

Nik beti esaten dot ez dala biharko itxi behar gaur egin ahal dana, esperientziak erakutsi deustalako ezpabere egin barik geratuko dala. Horregaitik mobilizazioetan parte hartzerako konbidatzen zaituet, eta, dudarik ez izan, irabaziko dogu.



## LUMATUTEN



## IZASKUN ATUTXA

## Andrak gizonen pribilegioai aurre egin deutsee martiaren 8aren egun historikoan

**I**nork ez dau dudan ipinten martiaren 8a egun historikoa izan dala eta andrak, oin arte gertatu ez dan moduan, batu egin dira bardintasuna aldarrikatzeko. Mobimentu feministaren lana hasi da frutuak emoten eta andra guztientzako justizia eta bardintasuna eskatzen dauan gizartean sartzean doa.

Oin hausnarketarako denpora hasi da, ekintza konkretuak planifiketako momentua, gizarte zati bateri etekina emoten deustan gizarte antolaketa eredu aldatuteko. "Konziliazioa, soldata arrakala eta indarkeria dira neure eretxian aurrera egin beharreko helburu nagusiak" adierazo eban Irati Jimenez idazleak.

**Zaintza lanak eta Silvia Federici**  
"Imaginetan dozu gizonak ur-

teetan zehar, lan industrialak doban egitea, gizonen lana dalako?" galdutuen dau Silvia Federici aktibista feministek. Holan balitz lan industrialak naturalizata egongo litzateke, feminidadeari lotuta eta doban egiten dan zaintza lanagaz gertatzen dan moduan. Naturalizata dagozanez, lan merkaduan sartzean diranean gitxien ordainduten diranak dira lan honeek.

Zentzu honetan, ezinbestekoa da zaintza lanak lan eta familia konziliazioagaz batera landutea, herrialde nordikoak erreferente hartuta.

### Indarkeria matxistea

"Euskal Herriko 4.519 andra genero indarkeriaren biktima izan ziran igaz. 52k bizkarzaina daukie gizonak erail ez dagiazan, euren bikotekide edo bikotekide ohiak hil dabazan hiruren moduan" azaldu dau egunotan Izaskun Landaida Emakunderen zuzendariak.

Bilboko Udalaren lana aitatu behar da hemen. Izan be, mobimentu feministek eskatuten dauan moduan erasotzaileak hasiko da bijiletan, eta ez biktimak.

### Soldata arrakala

Gizon eta andren arteko soldata arrakalaren eraginez, andrak batzbeste, lanordu bakotzeko %18 gitixiago irabazten dabe eta kontratu partzialen ia %80 andrazkoenak dira. NBERen arabera, egoera hau ez da konponduko 70 urte pasau arte. Ha-ta guzti be, hor dago Islandia gai honen gainean beharrean dabilena markadetan eta oin dala gitxi sexuen arteko soldata desbardintasuna galarazoten dauan lege bat onartu dauana.

## ZERTZEAN



## LEIRE AGINAGA

## Yonki ziklika

**B**art, kalea gurutzatzen ikusi nuen, bakarrik beti bezala, ixilean. Ez zuen ahorik zabaldu, ez zitzaion beti soinean zeraman irribarrea margoztu. Leihora so egin zuen, arineketa kortina hotzaren atzean ezkutatu nintzen, ufa, ez ninduen ikusi. Edo hori uste dut behintzat, ikusi ezkeru keinu lagunkoi bat eskeiniko zidan. Zita izan genuen, biok, elkarrekin, bakarrik, ez zen agertu. Berriro begirada leihora zuzendu nuen. Jada ez nuen ikusten, gau ilunean desagertu zen, euria hasi zen.

Garai txarrak ziren hauek, bizitzeko eguneroko morfina dosia beharrezkoa genuen, hau gabe, gureak egin zuen. "Piropo" merke bat nahikoa zitzaigun udaberriko ezteidei, pitxiloreen loraldiei, bat-batean gurutzatutako begirada konplizeei eta zirri goxoei lekua kentzeko. Hipokresiaz beterik zeudela jakin arren esandako hitz politikak, haizeak eramaten dituen horietakoak, horiexek ziren ohikoenak eta. Gure linboan mantentzeko gai zen edozeri eusten ginen putzu sakonera ez erortzeko, bakarrik geundela ez sentitzeko.

Errutinaren morroiak bihurtu ginen Hertzainak- en ahotsean.

Ez dut nire burua zurituko, nire eguneroko dosirik gabe mamu goibel bat baino ez nintzen, eguzkiaren lehen argi izpiarekin esnatu, eta noizbait norbaitek probatzen emandako droga horren bila kaleetatik noraezean dabilena.

Baina baneukan beste erremedio natural bat errutina zikin horri aurre egiteko, gauarekin batera iristen zena.

Gauetz, fantasma hori izateari uzteko antidotoa hartu eta buala! Gau osorako esna, bere begietan galduz. Egun bakoitzeko kolore eta forma desberdin batez janzten zen, edo hori iruditzen zitzaidan. Egunsentia heldu orduko berriz ere, alde.

Gezurti hutsa zela zioten denek eta bi aurpegi zeuzkan arren guri beti berdina erakusten zigula. Bere beste aurpegia ikusteko desiratzen nengoen. Ikusten nuena baino txundigarriagoa ezin izango zela autoengainatuz.

Beste goiz bat, alarma, katilua, soka.

Gaur gauean leihotik begira, ez dut ikusi. Egia esan, berarekin haserre nago, azken enkuentrura ere huts egin zuen, azkenaldian zerua estalita baitago.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**Z**ezeilaren 28an, edurrak Arratia zuritu eban eta Arteako plazan edurrezko txotxongiloak egiteko beste egon zan. Baina arrastian hego haizeak jo eta, laster askoan ur-erreak bihurtu ziran.

Gurean ez dau edur askorik botaten eta botaten dauanean be, kaleetan behintzat, ez dau askorik irauten. Zezeil amaieran eta marti hasieran, edur eta hotz tenporal batek Europako zati handia hartu eban. Bitartean baina, Ipar Poloan, ohi baino sei gradu gehiago egiten eban.

Aurten neguan hotz izan dogulako lasaitu ederra hartu dogun arren, beroketa globalak poloetako izotz geruzak urtzen eta klima aldaketa azkartzen jarraituten dau. Oin, udabarri giroan, ahaztu gura doguz edurrak eta hotzak: giro epelaz disfrutau etxetik kanpo. Basoan eta itsasertzean, naturaz gozatu. Klimaren aldaketearen ondorioak urrun gertatu eta gure paisajea betiko balitz moduan.

Baina ez da holan. Eta erabilten doguzan energia iturriak eta konsumo moduak ez badoguz aldatzen eta poloetan tenperatureak gora egiten jarraituten badau, tenporalak sarriago eta gero eta bortitzagoak izango dira. Baita gurean be. Eta maite doguzan paisajeak desagertu egingo dira, hego haizeak jotako edurrezko txotxongiloen moduan.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarrabia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39  
Kalegora Zentzu 101  
R.P.S. 21/06

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000-480-839-000/000-707

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## ARRATIA

# Egun historikoa

Aurtengo martiaren 8a historikoa izan da Mobimentu Feministarentzat. Grebak segmentu handia izan eban eta Mobimentu Feministaren datuen arabera, 230.000 andra manifestau ziran Euskal Herrian. Arratiako mobilizazioak be inoz baino jentetsuagoak izan ziran.

### Erredakzioa



## NOKA ETA ORRATZAK TALDEEN BALORAZINOA

Martiaren 8koa greba historikoa izan da. Mundu osoko kaleak eta plazak, Arratiakoak barne, Mobimentu Feministaren aldarrikapenak bat egin eben andrakaz bete ziran.

Edade eta jatorri desbardineta andrak, langileak, jubiladuak, pentsakera politiko desbardinetaok... andra guztiak batu ginan, geure indarra erakutsiz, eredu patriarkal honeri aurre egiteko helburuagaz.

Igorren, goizeko 12:00etan Kultur Etxetik hasita Lehendakari Agirre etorbiderantza mobiduten hasi ginan, danok baltzez eta morez jantzita, zarata egiten, gure aldarrikapenak ohiukatzen. Bide erdian institutuko gazteak alkartu ginan, magiaz betetako momentua izan zan, hunkigarria da-eta edade desbardineta andren arteko alkartasuna sentidutea.

Arratia mailan, Bilbon eta beste lekuetan egin ziran mobilizazioak oso arrakastatsua izan dira duda barik, eta Noka eta Orratzak taldeen balorazioa ezin hobea da.

Dana dala, lehenengo greba arrakastatsua honen ostean lan asko dago egiteko, feministok erronka polita daukagu metatu diran indarrak bideratzen eta areagotzen. Era berean, ezin ahaztu martiaren 8ko greba, Mobimentu Feministek mendeetan zehar egindako lanaren emaitza izan dala.

Martiaren 8ak argi itxi dau eredu kapitalista eta patriarkalari aurre egin behar deusagula eta badaukagula horretarako indarra.

GORA BORROKA FEMINISTA!

## Feminista gazteen topaketea hilaren 24an

### Erredakzioa

Ernaik eta Arratian sortu barri dan Orratzak talde feministek, Arratiako Gazte Egun Feminista antolatu dabe hilaren 24rako Igoerreko Kiñu Gaztetxean. Aurkezpena, berbaldiak, Bizkaiko talde feministen topaketea eta ekitaldi feministea izango dira jarduera politikoenak; esnatze jolasak, bertso-bazkariak, poteo feministek eta FeminHaziak dj-ak barriz, ipiniko ditue alde ludikoa.

Egunari hasikerea 10:30ean emongo deusie aurkezpenagaz. Ondoren berbaldi bi egongo dira. Lehenengoan Fatima Galia Mohamed Salem-ek andra sahararren egoeraren gainean egingo dau berba eta ondoren, Ibai Fresnedo sexu hezitzaile eta bardin-tasun teknikariak sexua eta pornografiaren inguruan jardungo

dau. Eguerdian, Malen Amenabar botako dabez bertsoak bertso eta Nerea Ibarzabal bertsolariak bazkarian.

10:30 Esnatze jolasa eta aurkezpena  
KIÑU GAZTETXEAN  
11:00 Fatima Galia Mohamed Salem: Emakume sahararren egoera  
12:15-12:30 Atsedena  
12:30 Ibai Fresnedo: Sexue eta pornoa, zelan bizi doguz gazteok?  
14:30 GAZTE BERTSO BAZKARIE  
Malen Amenabar  
eta  
Nerea Ibarzabal  
(Tiketak Igoerreko herrikoan, 8 euro)  
17:00 Bizkaiko talde feministen topaketa  
18:30 Poteo feminista herritik  
21:00-00:00 FeminHaziak (DJ)  
22:30 Ekitaldi feminista

## ARTEA

# Ingurumenaren gaineko dokumental sarituak Artean

### Erredakzioa

Aurten hirugarren urtez, Ekozine-maldiko bost pelikula ikusi ahal izango dira Artean, saio bitan. Lehenengo saioa martiaren 21ean izango da eta *El otro lado de la tecnología*, *Frontera invisible* eta *Tipi-Tapa bagoaz* ikusi ahal izango dira. Hilaren 23an barriz, *Desierto líquido* eta *Caminar sobre el abismo de los límites* izango dira ikusgai egongo diran pelikulak. Saioak arrastiko 18:00etan izango dira Kultur Etxean.

*El otro lado de la tecnología*, Jose Prieto eta Leonardo Llamasen film saritua, sistema honek

produzidutako soberakinen gainekoa da. Izan be, hondakinokaz zer egin jakin ez, eta herrialde pobretuetara bialtzen dira. Filmak zor ekologikoaren kontzeptua landuten dau.

*Frontera invisible* filmak be hainbat sari jaso ditu. Kolonbian biodiesela ekoizteko erabilten diran palma afrikarren laborantzez eta horretaz informatze hutsak suposatzen dauan arriskuaz da filma. Pelikulan parte hartu eban ekintzaileetako bat, Hernan Bedoya, Kolonbian estreinau eta gitxira erail eben.

*Tipi-Tapa bagoaz*, bizimodu iraunkorrak egiteko kanpainako



bideoa be ikusi ahal izango da lehen saio honetan.

### Martiaren 23an

*Desierto líquido* Alba Azaloe eta Daniel Carrasco euskal zuzendariak ekoiztutako dokumentala da. Mauritania eta Senegaleko egoerak aurkezten ditu. Aztergaiak itsasoa eta arrantza, eta kapitalismoa eta larregizko ustiaketaren inpaktuak dira.

*Caminar sobre el abismo de los límites* dokumentala klima aldaketaren gainekoa da.



## ARRATIA

**Lehen sorospen ikastaroa antolatu dau Gurutze Gorriak**Erredakzioa

Arratiako Gurutze Gorriak, lehen sorospenak eta desfribiladore automatikoa erabilteko ikastaroa antolatu dau. Ikastaroak 48 ordu iraungo dau eta Gurutze Gorriako titulazioa lortzeako da. Eskolak Igorren izango dira, Arratiako Gurutze Gorriaren lokalean.

Apirilaren 13an hasiko da eta hiru aste-buruz luzatuko da. Saioak barikuetan izango dira 16:00etatik 21:00etara eta zapatu eta domeketan 09:00etatik 14:30era. Izena apirilaren 2ra arte emon daiteke Gurutze Gorriako Igorreko lokalean edo 94 673 62 62 telefonoan.



## ZEBERIO

**Ortu eta lorategiak ongarrizteko tailerra hilaren 24an**Erredakzioa

Zeberio Udalak eta Gure Indarra jubiladu eta pensionisten alkarteak, ortuak eta lorategiak ongarrizteko teknikak ikasteko tailerra antolatu dabe. Tailerra martiaren 24an izango da Arkaitz Esesumaga nekazal ingeniari teknikoaren eskutik.

Goizeko 10:00etatik 13:00etara izango dira eskolak, eta parte hartzaileak, ortuak eta lorategiak zergaitik, noz eta zelan ongarritu behar diran, landareen nutrizioa eta ongarriri motak landuko ditue, besteak beste.

## DIMA

**Beste komunikazio modu bat aurkezteko dokumentala Diman**Erredakzioa

Donamartiriko Arberoa ikastolak bere ibilbidetan erabilitako Komunikazio Ez Bortitzaren (KEB) ereduaz azaltzen duan DVDa aurkeztuko da martiaren 16an, 19:00etan, Abaroa Aretoan. Guraso talde bat komunikazio ez bortitza landuten dabil Diman eta herriko guraso, gazte, nagusi, irakasle eta herritar guztiak konbidatu gura dauz komunikazio modu hau ezetuten.

Donamartiri Behenafarroako herri txiker bat da. Arberoa ikastolea lau ikasle eta irakasle batez sortu zan 2008an. Gaur egun 71 ume, bost irakasle, hiru laguntzaile eta laguntzaile berezitu bat dagoz ikastolan. Ikastolearen ardatzetako bat ondoizatea da eta horretarako, komunikazio ez bortitza, Marshall Rosenberg Estatu Batuetako psikologo eta irakasleak pasa dan mendean garatutako hartu-emonetako eredu erabilten dabe.

Komunikazio ez bortitza zer dan eta zelan gauzatu azaltzen duan dokumentala



proiektatu bitartean, zaintza zerbitzua egongo da eskolan behar dabeneztat.

## ARTEA

**Tatuajeak Arteako Mataderoan apirilaren 13 eta 14an**Erredakzioa

Apirilaren 12tik 14ra, TattooArtean, euskal preso eta errefujiaduen alde dirua batzeako ekimena antolatu dabe. Bertan, berbaldiak, kontzertuak, ikuskizunak, herri bazkaria eta tatuajeak egiteko aukerea egongo da.

TattooArtean jardunaldiak, apirilaren 12an, barikuan, hasiko dira, arrastiko zazpiretan Arteko Kultur Etxean egingo dan aurkezpenagaz. Ondoren, *Hemen right now* dokumentala eta zineforuma egongo dira. 2016an, Angela Davis espetheen kontrako aktibista feministea Euskal Herrian egon

zan, eta dokumental honetan bere pentsamentua eta gai honen inguruko euskal herritarren gogoetak jasoten dira.

Tatuajeak hurrengo egun bietan egingo ditue Mataderoan, goizeko 11:00etatik iluntzeko 19:30ak arte. Egun bakoitzean lau tatuatzaile egongo dira eta teknika desbardinak erabiliko dabez tatuajeak egiteko. Piercing-ak egiteko aukerea be egongo da. Altsasuko auzian inputautako gazteen aldeko konzentrazioa, erakusketea, herri bazkaria, antzerkia eta kontzertuak be egongo dira astegoienean.

Tatuatzeko izena emoteko,

tattooartean@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

**Identidade propioa**

TattoArtean, "Arratiako bailaran sortutako herri ekimena da, eta tatuajeen mundua, alkartasuna eta artea lotzean ditu. Idea Europa mailan eta Euskal Herri mailan egiten dan Tattoo Circusetik dator, baina identidade propioagaz. Arratiako bailaran bizi garan jentea alkatu gara, asanbladaren bitartez ekimen hau aurrera eramateko" azaldu deusie BEGIRURI antolatzaileak. Arkaitz Estiballesek sortutako leteagaz kantu bat egin dabe eta baita hormairudi bat errotondan be.

Kartelean eta hormairudian agertzen dan andrea Maud Stevens Wagner da, erregistratua dagoan lehenengo andra tatuatzaile profesionala. Kansas-en (AEB) jaio zan 1877an.



Maud Stevens Wagner-en irudia.

## ARRATIA

**Prezioa:**  
200€  
350€ bi anai-arreba  
470€ hiru anai-arreba

**Matrikulazioa:**  
Martxoak 22, 18:00-20:00  
Martxoak 23, 18:00-20:00  
Igorreko Kultur Etxeko sarreran

**Umeak izena emateko beharrezko datuak:**  
Izen-abizenak  
Jaiotze data  
Telefonoa  
Emaila

**Zaztaparrak**

**Zaztaparrak-eko udalekuetara joateko izen-emotea zabalik**Illart Gumuzio

Zaztaparrak Asti Taldeak antolatutako udalekuetarako matrikulea egiteko aukera egongo da martiaren 22an eta 23an Igorreko Kultur Etxeko sarreran 18:00etatik 20:00etara. Udalekuak Altsasun izango dira 6 eta 17 urte bitarteko ume eta gazteentzat abuztuaren 1etik 12ra bitartean. Prezioa 200 eurokoa dan arren, bi neba-arrebek 350 euro eta hi-

ruk 470 euro ordaindu beharko ditue. Umearen izen-abizenak, jaiotze data eta kontakturako telefono eta helbide elektronikoa emon beharko dira. Igaz, izena emondako guztiak izan eben udalekuetara joateko aukerea, baina aurten 100 ume eta gaztetan jarri behar izan da muga. Hori dala eta, izen-emotea plaza kopurua baino handiagoa izan ezker, zozketa bidez ebaztiko litzateke doazanen zerrendea.



## ZEBERIO

# Berreskuratze eta mantentze lanetarako igaz baino diru gehiago udal kontuetan

### Erredakzinoa

Zeberioko 2018ko aurrekontuak martiaren 2an onartu ziran EAJ-PNVren aldeko botokoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Aurrekontuon arabera, Udalak 1.360.300 euro kudeatuko ditu, igaz baino %2,17 gehiago.

Herriko ondarea mantentzeko hainbat diru partida dago inbersi- noen kapituluak, San Antonio er- mitako lanak amaitzeko eta beste diru partida bat Zeberioko Museo Etnografikora bideratutakoa, ber- barako. Kultur Etxea, herriko denda eta udaletxearen fatxadak margoz- teko eta erreteilak egiteko dirua dago, baita Telleriko aisialdirako gu- nea eta Santa Krutzeko landakoa berreskuratuteko. Sautuolabarrin zuzatzak landatuko ditue.

Upon udalerraren memoria his- torikoa berreskuratu eta manteni- duteko asmoz, metrailadora-habia eta Burdin Hesiaren gainerako hondarrak seinalizetako lanak egi-

teko diru partidea dago 2018ko aurrekontuan.

### Auzuneetako bideak

Zeberioztarrak egindako ekarpe- nen artean, beira kontenedorea eta bideen mantenimentuak ego- zala eta horreek aurrekontuetan sartu dirala azaldu deutso BEGURI Unai Larrabide EAJ-PNVren zine- gotziak. "Beste partida garrantzitsu batzuk markesinak jartera bide- ratutakoak, edukiontzien guneak egokitzekoak eta auzo bideak konpontzekoak dira. Azken kapi- tulu honetan, nabarmentzekoa da Argiñao auzora doan bidearen obra integrala egingo dala".

Hasitako lanakaz be jarraituko dabe, eta, "kasua balitz" suteen aurkako materialen armario gehia- go ipinteko be gorde da dirua.

### EH Bilduk kontrako botoa

Kontrako botoa emon eban EH Bilduk eta horretarako hiru errazoi egon zirala azaldu deutso BEGURI

Kepa Perez Urraza zinegotziak. Izan be, "alkateak soldatea jaso- tearen kontra gagoz; EH Bilduren proposamen bat bera be ez zan onartu eta aurrekontuok gaztelania hutsean aurkeztu ziran".

2016ko aurrekontuetan agertu zan lehenengoz alkateari soldatea pagetako diru partida bat. Ordura arte, alkate eta zinegotzientzako dietak pagetako diru partida bat egoten zan eta EH Bildu kontra agertu zan. EAJ-PNVren ustez bar- riz, Zeberio dedikazino osoko alkatea behar dau.



Zeberioko udaletxea.

edo zeharkako indarkeriak; eraso fi- siko, psikologiko edo ekonomikoak, eta bikotekideak, aitak edo semeak emondako tratu txarrak egindako min psikologikoa gainditzen lagun- du gura dau zerbitzuak.

### Itxaron zerrendarik ez

Zerbitzua hasi zanean kasu piloa egon zirala dino Begoña Empara- nek, baina oin kasu kopuruak behe- ra egin dau eta eta kezkatuta dago. "Jenteak uste dau, jentea ez bada etorten, indarkeria gixitu egin da- lako dala, baina ez da holan izaten. Konplejaua da" dino psikologoak.

AUMk eskeintzen dauan zerbitzu- ra zuzenean deitu eta psikologoagaz hitzordua jarri daiteke. Ez da salake- tarik ipini behar, ezta beste zerbitzu batetik pasau behar be. Doban da eta momentu honetan ez dago itxa- ron zerrendarik.

### Zerbitzu personalizaua

Indarkeria mota bardina izanda be, kasu eta personearen egoera desbardina da beti eta aurre egite- ko modua be bai. "Ikusten da zein dan kasu bakotxa. Bikotekideak egindako biolentziaren aurrean be, batek euki ahal dau laguntza familiaren aldetik edo babes sare bat eta beste batek leitekena da holangorik ez izatea".

Aurre egiteko modua integrala izaten dala eta gitxi gorabehera 16 saio izaten dirala, beti be eskatzailearen preminetara egokituta jakina- razo dau Zutituko psikologoak.

## IGORRE

# Maddalen Iriarte Igorreko Kultur Etxean izango da martiaren 22an

**EH Bilduk antolatuta, Maddalen Iriarte Legebiltzarrean**

**EH Bilduren bozeroaleak, Autonomiatik soberaniara.**

**Estatus berri baterako oinarriak izeneko**

**dokumentuaren barri emongo dau martiaren 22an,**

**19:30ean Igorreko Kultur Etxean.**

### Erredakzinoa

Dokumentuak EH Bilduren posizioa adierazoten dau Euskal Herriko estatus politikoa eta erabakitze- ko eskubidearen gainean eta Eusko Legebiltzarreko autogobernuari buruzko batzordearen eztabaidan aurkeztu eban koalizioak.

EH Bilduk proposatzen dau Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osotuko leukien EEE Euskal Estadu Erkidegoaren eta Espainiako Estaduaren arteko hartu-emona "bardintasun politikoaren prin- tzipioaren gainean" artikulatzea. Erabakitze- ko eskubideari jagokonez, EH Bilduk uste dau estatus barriak eskubidea jaso behar

dauala, baita gauzatzeko proze- dura be.



## ARRATIA

# Indarkeria matxistearen biktimentzako debaldeko laguntza psikologikoa eskeintzen dau AUMk



Mankomunitateko egoitza.

### Erredakzinoa

Indarkeria matxistea gizarte mai- lan burukatu behar bada be, sufridu dabenen personengan sendatu beharreko arrasto psiko- logikoak ixten ditu askotan. Hori dala eta, 2015etik Arratiako Uda- len Mankomunitateak, laguntza psikologikoa eskeintzen deutse indarkeria matxistearen biktimai Zutitu-ren eskutik.

Begoña Emparan da Arratian

diharduan psikologoa, eta astean hirutan egoten da mankomunida- dearen egoitzan, tratu txar fisiko, psikologiko edo sexu eraso- en biktima diran ume, andra zein gizonai dobaneko arre- ta konfiden- ziala emoten.

Zerbitzuak ez ditu artatzen baka- rik gertatu barri diran sexu erasoak edo beste motatako indarkeria ma- txistak, antxinakoak be tratetan ditu, kalte psikologikoak luze iraun leikie eta. Beste batzuen artean, zuzeneko

## ARRATIA

# Ikas-komunidade lankidetzaren foroaren bigarren saioa

### Erredakzinoa

Martiaren 6an, Igorreko Kultur Etxean, Ikas-komunidade lanki- detza foroa bigarren batu zan. Arratiako hezkuntza eragileak, eskualdeko hezkuntza diagnos- tikoaren ezaugarriak definitu ebezan saioan eta talde eragileak, zentroen arteko sarea sortze- ko erronea hartu eban. Talde era-

gile hau Arratiako zentro guz- tien arteko ordezkari- ez osotuta egongo da, eta ikastetxe guz- tien arteko hartu-emona indartzeko helburuagaz egingo dau lan. Aprila bitartean egingo dau lehen batzarra.

Hirugarren foroa maiatzean izango da, eta bertan emondako aurrerapausuen barri emongo dau Errota Fundazioak.



Forora hurbildutakoak.



## FERRAN CIVIT ETA IGNASI TERMES

# Katalunian bizi izandako prozesua transmitidutera etorri ziran Omnium Cultural eta ANCko kideak Arratiara

Ferran Civit, Katalunian prozesuari hasikerea emon eutsien mobilizazioak antolatuten egon zan, eta oin Esquerra Republicanako diputadua da Kataluniako Parlament-ean.

Ignasi Termes Omnium Cultural-eko zuzendaritza batzordeko kidea da. Asmplea Nacional Catalana-ren (ANC) idazkaritzan egon zan Civit-egaz batera, eta 2012tik 2015era eta urri lehenengoaren 11ko manifestazioak eta giza-katea antolatu eben, beste mobilizazio batzuen artean. Civit-ek eta Termes-ek alkarregaz egin dabe lan herri konsultetan eta Areatzan egon ziran zezeilaren 23an, Gure Esku Dagok (GED) konbidauta.

ANCren espiritu bera daukala Gure Esku Dagok dinoe.

## Erredakzioa

### Zein da Areatzan emon gura izan dozuen mezua.

**I.T.:** Katalunian bizi izandakoa transmitidu gura izan dogu Euskal Herriko herri konsultakaz paralelismoak ditualako. Sano garrantzitsua iruditzen jaku. Eta horixe da independentziarako prozesuaren muina: demokrazia, hautestontziak ipintea, eta nazino baten etorkizun kolektiboa ebaztea. Horregaitik, eta prozesu hau bizi izan dogulako, esperientzia hori konpartidu gura izan dogu, ikusteko zelan biziten dan hemen eta zelan bizi izan genduan guk.

### Zergaitik etorri zarie Areatzara? Urri bigarrenaren 1eko bisitea itzultzera?

**F.C.:** Bai. Pare bat aldiz etorri gara Gure Esku Dago-gaz. Eskatzen deuskuen guztietan etorten gara tailerrak egiten edo berbaldiak emoten. Baina horregaitik be etorri gara; hau da, adierazotako solidaridadeagaitik eskerrak emoten. Eta jakina, GEDren mobilizazio

eta herri konsulten olatuan ahal dogun guztian lagunduteko.

### Urri bigarreneko 1etik hona asko aldatu da egoera Katalunian. Zein da egiten dozuen balorazioa?

**I.T.:** Omnium Cultural-en, argi ikusten dogu atzera bueltarik ez daukien puntuak egon dirala. Urri bigarrenaren 1ekoa horreetako bat izan zan. Kataluniaren historian zein gure erakundean. Omnium Cultural alkarreak 57 urte ditu eta 57 urte horreetan inoz ez dogu sufridu oin sufriduten gabizan errepresinoak: alkarreko presidentea kartzelan daukagu. Ezta frankismoan be. 1960ko hamarkadan urte biz bertan behera itxi eben alkarrearen aktibidadea, baina inoz ez da Omnium Cultural-eko presorik egon. Eta errepresino horrek eragina dauka.

Alde ona be euki dau, ze azkenengo hileotan, bazkide kopurua asko igon da. Omnium-en 99.500 bazkide daukagu momentu honetan, laster 100.000 izango gara. Urri bigarrenan,

"Estadu espainolean izan daitezela gura dabena.

Gura doguna izateko, leku bakotxean erabagi egin behar da hangoak zer gura daben"



Ignasi Termes eta Ferran Civit.

60.000 bazkide ginan, eta oin ia 100.000. Ia 40.000 bazkide barri presidentea kartzelan dagoanetik. Beraz errepresinoak jentearen babes handiagoa ekarri dau.

Barça futbol klubaren ostean, bigarren alkarre handiena gara.

Horrek erantzukizun handia eta baliabide asko dakar eta gure herriaren egoeran, oinarritzko papela jokatzen dogu. Presidentea kartzelan izateak markau dau Omnium-en egoera. Bere ekin-tza antirrepresibo guztiak, karte-

**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan





latik atera ahal izateko dira, preso politikoak libre itxiteko, eta gure papela, aurrean daukagun egorea ikusita, birpentsetako da. Alderdi politikoai bateratasuna eskatzen deutsegu, gobernu eratu ahal izateko eta 155a bertan behera itxeko. Gobernu bakarrik ez, gure erakundeak errekupeau behar doguz, ze ez dakigu non amaitzen dan 155 hori. Itzal luzea dauka, eskolara eta hedabide publikoetara ailegau dana... Presazkoa da erakundeak errekupeatea eta Omnium-ek babes emongo deutse ados ipinten diran partiduai.

**F.C.:** Urri bigarrenaren 1a gaur egungo Kataluniaren sortze momentua izan zan. Gainera herriak berak egin eban, danok alkarregaz. Han egon ginan danok alkarren ondoan: oin politikariak diranak, udal ordezkariak, herritar xumeak... Ze herritarrak izan ziran hautes-tontziak defendidu ebezanak, demokrazia defendidu ebenak eta Estaduko indarren aldetik egurra jaso ebenak. Uste dot sano momentu garrantzitsua dala, eta markauko dauzala etorkizuneko belaunaldiak eta etorkizun politikoa.

Baina gero, Espainako gobernu 155agaz, gure gainera pasau zan, eskubide zibilen gainera. Itzelezko bidebakokeria izan da hori, atzen 40 urteotako handiena. Erakunde katalanen gainera, partiduen gainera, Kataluniako gobernuaren gainera pasau dira: lau persona dagoz kartzelan egoera prebentiboan eta justifikautako errazoi barik; beste 5 persona atzerrian dagoz, eta beste 300 inguru ikertzen dabilz sumario sekretupean. Seguruenik gu biok be egongo gara 300 horeen artean. Ikusiko dogu ze literatura ateraten daben guri buruz.

Baina inportanteena da, hau



# ÒMNIUM

## LLENGUA CULTURA PAÍS

danau gertatuta be, jenteak zutunik jarraituten dauala, jenteak lan egiteko gogoa dauka eta guk etxera ekarriko doguz kartzelan dagozanak eta atzerrian dagozanak eta errepublikea eregiko dogu apurka-apurka. Inoz baino jente gehiago batu dogu. Hori indar ikaragarria da. Zoritxarrez, azken bidebakokeriari esker, inoz baino errazoi gehiago daukaguz Espainako estaduak gure errepublikea onartuteko.

**Eskubide zibilen murrizketea ez da bakarrik Katalunian gertatu, baina sensazioa daukat jente asko ez dala horretaz konturatu.**

**F.C.:** Zentzu horretan, basamortua dago. Guk enpatia eskatzen dogu, eta baten batek emoten deusku, baina katalanok gara errepresinorik handiena sufriduten gabizana. Estadu espainiarrentzat errepresinorako laborategia gara. Baina errepresinoia be gertatzen da Pablo Hasel eta Daltonic raperoakaz berbarako, bata Kataluniakoa eta beste Balear Iretakoa, uste dot. Inpunitadea dago, Euskal Herrian

lehen Egunkariagaz gertatu zan moduan.

**I.T.:** Independentismotik kanpoko errepresino modu asko dagoz eta oin arte, gizarte zibilak ez deutso behar dauan erantzunik emon honeri. Zentzu horretan Omnium-ek beti egin dau lan kohesino sozialaren alde. Frankismoaren ostean batez be. Atzenengo urtean, Jordi Cuixart presidenteak asko sendotu eban lerro hori, *Luchas compartidas* izeneko proiektuagaz. Honen helburua Katalunian izandako burruka guztiai balioa emotea zan: auzoetako burrukai, burruka feministai, lan eskubideen aldekoai...

Igaz egin genduan hori eta uste dogu barriro be gogora ekarteko momentua dala. Izan

be, demokraziaren aldeko burrukea alkarregaz egin beharreko burrukea dalako, proiektu independentista batetik harago. Demokraziaren eskubide zibilak gainera dagoz.

Espainiako estaduan abots kritiko gehiago egon beharko litzatekeza uste dogu. Jentea altxau egin beharko litzatekela estadua deriba antidemokratik honen aurrean.

**F.C.:** Eta honek sendotu egiten dau gure lana, ze guk gura doguna da persona libre herri libre bat egitea. Eta polizia, sistema judizial, politiko eta legegilearen esku-hartzeak, estadu espainiarrik ez dau ixten inon persona librerik egotea. Mozal legea, esate baterako, eskubide zibilen urratze itzela da.

**Komentau Katalunian egindako prozesua eta Gure Esku Dagok abiatutakoaren arteko antzekotasunak.**

**I.T.:** Uste dot GEDk ANCREn espiritua ondo jasoten dauala. ANC bere garaian, alkatere bat izan zan zeharkako modu baten dibersidade ideologikoko jentea batu ebana. ANCN pentsetan dogu herriak aurrera egiteko bere estadia behar dauala eta zentzu horretan, soberanismoan eta independentismoan egon daitezkean dibersidade guztiak batzean dauzan espazio bat aukitea garrantzitsua dala. Horixe egiten dabe ANCK

eta GEDk, erabakitze eskubidea aldarrikatzen dabe, autode-terminazino eskubidea. Hau da, geuk, herritarrok ebatzi behar dogula estadu bat izan gura dogun ala ez. Eta estadu demokratiko batek ahalbidetu beharko leuke hori.

**F.C.:** Ezin dira herriak eta egoerak konparau, baina ha-ta guzti be, nik Kataluniako lehenengo konsultetan, ANCREn sorreran egin ziranak, eta Euskal Herrian Gure Esku Dagoko ekimenetan, ilusino bera ikusten dot. Eta ilusinoia eta jentea daukazunean, mirariak egin daitezke.

**Zein da zuen utopia?**

**F.C.:** Nirea, munduko herrien eta personen batasuna da, baldintza bardenetan. Uste dot utopia egingarria dala. Gatxa da, baina lortu daiteke danok eskubide eta betebeharrak bardenak aukitea. Barden izatea handia ala txikia zaran, gizonezkoa ala andrazkoa, gay, lesbiana, transexuala... hizkuntza baten ala beste baten berba egitea, hemengoa ala hangoa izatea... Eta hau dana, logikoa danez, Estadu espainolera eroan, han ezinezkoa da eta.

**I.T.:** Edozelan be, Estadu espainolean izan daitezela gura dabena. Gura doguna izateko, leku bakotxean erabagi egin behar da hangoak zer gura daben. Lurralde bakotzak erabagi dagiala zer gura dauan izan.

assemblea.cat  
ASSEMBLEA NACIONAL CATALANA

## ARTEAKO UDALA




• HERRI BIDEEN INBENTARIO  
BARRIARI HASIKEREA EMON JAKO

• UDALETXEAN PLANO ETA FITXAK  
IKUSTEKO AUKEREA DAGO  
ETA BEHAR IZAN EZKERO  
ALEGAZINOAK AURKEZTUTEKO

• APRILAREN 19RA ARTE

*Epe horren barruan alegazinozik ez  
balego behin betiko onartuko da*





MENDIA

# Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketea, Federazinoko rankingean puntuagarria izango da

Martiaren 24an izango da IV. Kolazinoko Mendi Eguna Bedian.



Erredakzioa

Tiritu Kultur Taldeak antolatuten dauan proba herrikoia da, Euskal Herri mailan gero eta ezagunagoa. Aurten, mendi lasterketea Euskal Herriko Mendi Federazioak egiten dauan rankingerako puntuagarria izango da eta parte hartzea Euskal Herri mailakoa izango da. BTT lasterketea eta mendi martxea be izango dira Kolazinoko Mendi Egunean. Baina mendiaren jaiak egun osoa hartuko dau eta arrastian erromeria egongo da Jokaldi taldeagaz.

Hiru lasterketa eta mendi martxa bat egongo dira. Lehenengotik mendi martxako partaideak abiatuko dira. Ibilbideak 20 km. eta 1.000 metroko desnibela ditu. Gero txirindularien txandea izango da; horreek 34 km.ko ibilbidea 1.200 metroko desnibelagaz egin beharko ditue. Ondoren, Federazioaren rankingerako puntuagarria dan mendi lasterketea abiatuko da.

Partaideak 24 km. egin beharko ditue 1.500 metro desnibel positibodun ibilbidean, eta atzenik Junior eta Kadeteak urtengo dira 800 metroko desnibel positibodun 15 km. egiteko. Plazan batu eta antolakuntzak kotxez eroango daz Igorrebasotik gora dagoan guardarearen txabolara. Han hasiko dabe-eta lasterketea.

Parte hartzeako martiaren 18ra arte emon daiteke izena.

Ordutegia

- 06:00**retatik aurrera, dorsalak batu Bediako frontoian.
- 08:00**retan, mendi martxearen urtekerea plazan.
- 09:00**etan, BTT lasterketearen urtekerea plazan.
- 10:00**etan, mendi lasterketearen urtekerea plazan.
- 10:30**ean, Junior eta Kadete mendi lasterketea.
- 14:00**etan, proben amaieria.
- 14:15**ean, herri bazkaria.
- 16:30**ean, Jokaldi taldeagaz erromeria.

SOKATIREA

# Badaiotzek zidarrezko bat eta brontzezko bi Munduko Txapelketan

Erredakzioa

Badaiotz taldeko neskak zidarrezko domina lortu dabe Txinan jokatutako goma gaineko Munduko Txapelketan, 500 kiloko kategorian. Neurketa honetan podiuma Euskal Herriko beste talde bigaz osatu zan: Gaztedi izan zan lehenengoa eta Ibarra hirugarrena. Gainera, Badaiotzek, Basque Country ordezkaten, brontze bi lortu ebazan, 500 kilo eta 540 kiloko pisuetan.

Hiru podium horreetan egon zan Ruth Linaza Lemoako tiralaria. Lehenengo egunean ez ebela "behar beste tiratu" baina hurrengo eguntan zein dan euren maila erakusteko kapaz izan ziran. "Lortutako bron-

tezak urre zaporea dauka" esan deutso BEGITURI Linaza tiralariak. Izan be, Txina eta Txina-Taipei bakarrik gairitu jakiezan.

Euskal tiralariak

Munduko Goma Gaineko Sokatira Txapelketea Xuzhou (Txina) jokatuzan martiaren 8, 9, 10 eta 11n. Euskal Herriko tiralariak 16 domina ekari

ditue, bederati klubak lortutakoak izan dira eta beste zazpiak selekzio moduan.

Euskal Herriko sei alkarte joan ziran, 112 tiralari. Alkarteak, Badaiotz (Gasteiz, Araba); Berriozar (Berriozar, Nafarroa); Gaztedi (Laukiz, Bizkaia); Ibarra (Ibarra, Gipuzkoa); Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia) eta Zurraide (Lapurdi) izan ziran.



# Laburbira

Euskarazko film laburren zirkuitua  
Otsailaren 28tik martxoaren 28ra

[www.topagunea.eus/laburbira](http://www.topagunea.eus/laburbira)

 <b>ILUNPETAN</b> Koldo Carreras	 <b>NIGHT SHIFT</b> Isaskun Azandia	 <b>HIGADURAK</b> Amelia Otalola eta Oihane Zanzonagui	 <b>EJECUTOR</b> Javi Arriaga
 <b>TAZAN</b> Udo Films	 <b>AREKA</b> Aitor Iturriza	 <b>KREBA</b> Oier Fuentes	 <b>ZULO</b> Erika Oñalola eta Amancay Gastañaga

**TOKIA:**  
**Igorreko Kultur Etxea**

**EGUNA:** **Martiak 23**      **ORDUA:** **20:00**

**ANTOLATZAILEA:**  
**Zertu Kultur Elkartea**

Antolatzailea

Babesleak

Laguntzailea



## AZKOREA

# Txapelik ez arratiarrentzat

### Erredakzioa

Aitzol Atutxak eta Julen Alberdik bigarren egin eben Urrezko Aizkorako Binakako Txapelketan. Txapela, Iker Vicente eta Ruben Saralegiarentzat izan zan. Andrazkoen Buruz Buruko Urrezko Aizkoran, Irati Astondoa zeanuriztarak hirugarren egin eban, Maika Ariztegi eta Nerea Sorondoren atzetik. Finalak Azpeitiko Izarraitz pelotalekuan jokatu ziran martiaren 4an.

Proba osoan Iker Vicente eta Ruben Saralegi nafarrak aurretik joan arren, bardin antzera joan ziran lehiaren erdikaldera arte eta momentu batzuetan be nafarri aurrea hartzeako puntuan egon ziran Atutxa eta Alberdi. Eta atzen aurreko lana egiten, zutunik ipinitako 45 ontzako eta etzanda ipinitako kana-erdikoa ebagiten azkarrenak izan ziran dimoztara eta azkoitiarra.


Proba guztiak egiteko 24 mi-

nutu eta 45 segundo behar izan ebezan Saralegi eta Vicente txapeldunak. Aitzol Atutxak eta Julen Alberdik 25 minutu eta 53 segundoan amaitu ebezan. Joseba Otaegi eta Ugaitz Mugertza izan zan lehiatu zan hirugarren bikoa eta 26 minutu eta 15 segundoan egin eben lana.

### Andrazkoetan zeanuriztarak hirugarren

Andrazkoen buruz burukoan, Iturenko Maika Ariztegi, Zeanuriko Irati Astondoa, Elgorriagako Irune Izkue eta Berako Nerea Sorondo neurtu ziran. Lehia estua egon zan Ariztegi eta Sorondoren artean txapela lortzeako eta atzanean ehuneneko batzuegaitik irabazi eban Iturenkoak. Ariztegi 8 minutu, 15 segundo eta 8 ehuneneko behar izan ebezan lanak amaituteko eta Sorondok 20 ehuneneko gehiago.

Irati Astondoa hirugarren sailkatu zan 9 minutu eta 37 segundoko denporeagaz.



Aitzol Atutxa.



Irati Astondoa.

## FUTBOLA

# Igoerea urrunago

### Erredakzioa

Arratia futbol taldeko andrazkoen A taldeak jokatuako atzen partidu bietatik bata galdu eta bestea irabazi egin dau. Hilaren 3an partidu inportantea eukan lidertzan dagoan Bizkerre taldearen kontra baina Arratiak 2 eta 1 galdu eban partidua. Hurrengo astegoienean ostera 3 eta 1 irabazi eban Elorrioren kontra Urbietan. Arratia bigarren dago sailkapenean liderrarengandik 5 puntura eta gatx ipini jako lidertzea. Datorren partidua Lakua- ren kontra jokatu dabe hilaren 18an 16:00etan etxetik kanpo.

### Arratia B

Andrazkoen B taldea igoera fasea jokatu dabil eta partidu bi jokatu ditue daborduko. Martiaren 4an bina bardindu eban Adiskideak taldearen kontra etxetik kanpo jokatuako partiduan. Martiaren 10ean ostera 2 eta 3 galdu eban Bizkerre

B taldearen kontra. Datorren partidua hilaren 17an jokatu dau Urbietan Ugao B taldearen kontra 19:45ean.

### Gizonezkoak

Arratia futbol taldeko gizonezkoak ostera atzen bi partiduak irabazi dabez. Martiaren 3an 2 eta 0 irabazi eben Retuertoren kontra Igo- rren eta 10ean 0 eta 1 Ugeraga A taldearen kontra. Datorren partidua Erandioren kontra jokatu dau Arratiak 17an 17:30ean. 24 jardunaldi eta gero Arratia bosgarren dago sailkapenean 38 puntugaz.

LemoaHarrobi taldeak ostera bina bardindu eban martiaren 11n etxetik kanpo jokatuako atzen partidua Padura Bren kontra eta Arratia Bk 2 eta 1 irabazi eban Basurto Bren kontra hilaren 10ean. LemoaHarrobi laugarren dago sailkapenean eta Arratia B seigarren.

## TXIRRINDULARITZA EGOKITUA

# Oskar Garro igorreztarak lau podium txirrindularitzako Espainiako Pista Txapelketan


### Erredakzioa

Martiaren 3 eta 4an jokatu ziran Madrilen txirrindularitza egokitu- tako Espainiako Pista Txapelke- tea. Euskal Herriko selekzioan Oskar Garro igorreztarra egon zan. Igorreztarak bigarren postu bi eta hirugarren bat lortu ebezan eta euskal selekzioak bigarren egin eban valentziarren atzetik.

Podiumak egiteaz gainera, bere markak hobetutea be lortu dau Garrok. Martiaren 3an jokatuako 3 km.ko persekuzino lasterke- tan, bigarren egin eban aurreko urteko bere marka segundo

bitan hobetuta. Selekzioak be bigarren egin eban abiadura las- terketan.

Hurrengo eguneko lehenen- go lasterketan be bigarren egin eban, bere denporea segundo bat hobetuz "sano gatxa da pis- tan denporea bajatutea eta oso pozik nago" dino txirrindulariak. Atzen lasterketea 40 bueltako scratch modalidadekoa izan zan. Lasterketa honetan hirugarren egin eban Igorrekoak eta pozik agertu da bertan mundiala joku- tuko daben hainbat txirrindulari- gaz neurtu zalako eta hirugarren egitea gatxa zalako.



Oskar Garro eskoian.

### Espainiako Kopea eta Munduko Kopea

Pistako lasterketen ondoren, errepedeko lasterketak prestatzen hasiko da Garro. Izan be, Espai- niako Kopea apirlean izango da eta bertan parte hartzeako as- moa dauka. Munduko Kopako lasterketa batzuk be egin gura ditu, laguntzea izan ezkeru.

# Laburbira

Euskarazko film laburren zirkuitua  
Otsailaren 28tik martxoaren 28ra

[www.topagunea.eus/laburbira](http://www.topagunea.eus/laburbira)

<p><b>ILUNPETAN</b> Koldo Carreras</p>	<p><b>NIGHT SHIFT</b> Isaskun Arandia</p>	<p><b>HIGADURAK</b> Amara Otalola eta Oihane Zanczaregi</p>	<p><b>EJECUTOR</b> Javi Arriaga</p>
<p><b>TAZAN</b> Uña Films</p>	<p><b>AREKA</b> Aitzur Izabela</p>	<p><b>KREBA</b> Oier Fuentes</p>	<p><b>ZULO</b> Erika Oñalola eta Amancory Gastañaga</p>

**TOKIA:**  
**Areatzako Udaleko Areto Nagusia**

**EGUNA:** **Martiak 24**      **ORDUA:** **19:30**

**ANTOLATZAILEA:**  
**Zertu Kultur Elkarte**

Antolatzailea: Babesleak: Laguntzailea:



## ANTZEZLANA

**Etxeko saltsak endredozko komedia Igorren****Erredakzioa**

Martiaren 24an, *Etxeko saltsak* Txalo Produzioak-en antzelana egongo da ikusgai Igorreko Lasarte Aretoan, iluntzeko 20:00etan. Antzezleak, Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Ferdinando dira. Begoña Bilbaok zuzendutako *Etxeko saltsak*, (Alan Ayckbourn-en *Relativity Speaking* jatorrizkoan) endredozko komedia da.

Greg eta Ginny etxe berean

bizi dira. Maitaleak dira eta ustez zoriontsu bizi dira. Ustez, ze sekreturen bat dago tartean, isilgordean. Ginnyk gurasoen landertera bisita egitera doala esango deuto, baina guzurrea da. Izan be, Philip bere maitale sekretuarengana doa, harremana bertan behera itxi behar dabela esateko asmoz. Gregek, susmo txarra hartuta, neska laguna segiduko dau eta bera baino lehenago iritsiko da Philip eta Sheila, bere emaztea, bizi diran etxera. Ginny-ren gurasoak diralakoan dago.



## LEHIAKETA

**Lemoako VII. Narrazino Lehiaketa****Erredakzioa**

Apirilaren 22ra arte bialdu daitezke lanak Lemoako VII. Narrazino Lehiaketan parte hartzeako. Egileak 18 urte edo gehiago euki behar dabez eta gaia libre da.

Partaide bakotzak narrazino bakarra aurkeztu ahal izango dau eta narrazinoen gehieneko

luzeera sei foliotakoa izango da. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira edo [kultura@lemoa.net](mailto:kultura@lemoa.net) helbidera bialdu. Idazlanak izenburua edo izengoitia bakarrik euki behar dabe egilea identifikatu leiken ezelango zehaztasun barik eta datuak kartazal zarratu baten ipini behar dira.

**Sariak**

Lau sari egongo dira. Lehenengo saria 250 eurokoa da; bigarrena, 150 eurokoa; hirugarrena 100ekoa eta Lemoako egile onenak be 100 euroko saria izango dau. Saritutako lanak udalaren webgunean argitaratuko dira.

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak



[arratiko.zekorak@gmail.com](mailto:arratiko.zekorak@gmail.com)  
<http://santxisme.blogspot.com/>

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK

MOKETA • SINTASOLA • PAPEREA

Elizondo, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
TEL. 94 821 64 82 - 908 884 018

**www.uzteka.com**

•Aire gutxiar  
•Legutza pilaokulatu  
•Logopeda  
•Fisioterapia  
•Psikomotritate  
•Lana errotu  
•eta abar gehiago

## MUSIKEA

**Jostailuen gela ipuin musikala Lasarte Aretoan****Erredakzioa**

Martiaren 17an, Arratiako Musika Eskolako ikasleak *Jostailuen gela* ipuin musikala taularatuko dabe Lasarte Aretoan. Saio bi egongo

dira: bata bostetan eta bestea zazpiretan. Irakasleen orkestra eta Arratiako umeen eta Zornotzako Kantalai koruen partaidetza be izango dabe. Urtero lez, saio bietan Lasarte Aretoa betetea espero

dabe. Aforoa mugatua da.

Bostetako saioan, Arratiako Musika Eskolako 4 eta 8 urte bitarteko 42 ume hartuko dabe parte; Artea, Areatza, Dima eta Zeanurikoak. Zazpiretakoan barriz, Arantzazu, Igorre, Lemoa eta Zeberioiko 62 ume izango dira taula gainean. Eta zortzi urtetik gorakoak koruan kantauko dabe, Arratiako umeen koruan, saio bietan.

**Ikasleen alkartrukea**

Arratiako Musika Eskolako ikasleak eta Valentziako La Poble Llargoak alkarregaz kontzertu bi eskeiniko dabez apirlean; bata Areatzan apirilaren 7an eta bestea Igorren hurrengo egunean. Hamabi eta hogei urte bitarteko hainbat musika ikasle valentziar, Arratian egongo dira apirilaren 6tik 9ra. Eta aurrerago arratiarrak joango dira Valentzia aldera.

"Abesti tradizional bat bialdu deutsegu eta alkarregaz joko dogu" azaldu deutso BEGITURI Garazi Olabarrieta Arratiako Musika Eskolako irakasleak.

## HITZARMENA

**Hamaika alkarrek Udalagaz akordioa sinatu dabe euskerearen erabilera areagotzeko****Erredakzioa**

Lemoako Udalak abian daukan Euskerea Biziberritzeko Planaren helburu nagusia da euskeraz bizi gura daben herritarrai horretarako aukerak bermatuteko behar diran hizkuntza politikako neurriak ebaztea eta bultzatutea. Helburu hori lortzeako, hamaika alkarre eta eragilek eta Lemoako Udalak akordioa sinatu dabe euskerearen erabilera indartzeko konpromisoa hartuz.

Akordioari esker, eragileak euskerearen normalizazioan eragiteko konpromiso zehatzak hartu ditue eta Udalak, barriz, konpromiso horreek gauzatzeko laguntzea eskeiniko deutse teknikariaren bitartez. Euskerearen erabilera ahoz eta idatziz eta entidate barruan zein kanpora begira egiten diran jardueretan suspertzeko konpromisoa hartu dabe alkarreak.


**Alkarreak**

Honakoak dira akordioa sinatu daben alkarreak: Lemoatx JB Eguzkitza Meabe IPIko Ikasleen Guraso Elkarte, Ganzabal Mendi Taldea, Ekilore Keramika alkarre, Lemoa Esku Pilota, Arratiako Musika Eskola, Lemoako Harrobi Futbol Kluba, Lemoatx jubilatuen alkarre, Tranbia Txiki Arratia Institutuko Ikaslearen Guraso Elkarte, Lemoako Abesbatza, Iluntzen alkarre eta Lemoako Gure Txirindulari Elkarte.

Lemoako Udalak jakinarazu dau gainerako alkarre eta arloetara be zabalik dagoala prozesua eta herriko entidate, eragile eta erakunde guztiak akordioa sinatuteko aukerea daukiela. Horretarako, akordioa sinatuteko interesa dauanak Lemoako Udaleko Euskera Zerbitzura hurbildu behar dau.



## LEHIAKETA

**Dimako Jaietako Kartelerako Irudi Lehiaketa zabalik****Erredakzioa**

Dimako Jai Batzordeak, Jaietako Kartelerako Irudi Lehiaketa antolatu dau. Kartelean "Dimako jaiak 2018. Bagilaren 28tik garagarriaren 1era" testua agertu behar da derrigor. Irabazlearen izena maiatzaren 11n emongo da jakitera, udaletxeko tabloian eta webgunean. Herriko taberna baten afaria izango dau sarizat.

Lanok, maiatzaren 4ra arte aurkeztu daitezke udaletxean zein [kultura.dima@bizkaia.org](mailto:kultura.dima@bizkaia.org) helbidera bialduta. Papelean aurkeztu ezker, A3 tamainan; eta artxibo bat bialdu ezker, jpg. formatoan.



## LABURBIRA

# Umorea, intrigea eta kritikea dakarre Laburbirako 8 film laburrak Areatza eta Igorrera

Laburbira, euskerazko film laburren zirkuituak 29 herri bisitauko ditu, tartean Areatza eta Igorre.

### Erredakzioa

Hasikera baten 16rako iragarrita baegoan be, Areatzan, martiaren 24an, 19:30ean, udaletxeko Areto Nagusian da hitzordua, eta Igorren, aurreko egunean, 20:00etan Kultur Etxean. Zertu Kultur Elkarteak antolatuten dauz emonaldiak Arratian eta Areatzako eta Igorreko Udalak babes-ten ditue.

Hamabosgarren edizino hone-  
tan, *Ilunpetan* (Koldo Carranza); *Night Shift* (Izaskun Arandia); *Higadurak* (Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola); *Ejecutor* (Javi Arriaga); *Tazan* (Uda films); *Areka* (Atxur Animazio Taldea); *Kreba* (Oier Fuentes), eta *Zulo* (Erika Olaizola eta Amancay Gaztaña-ga) film laburrak proiektauko dira. Guztien artean, ordu eta laurde-

neko emonaldia osotuten dabe.

Filmak sano desbardinak dira estilo zein mezu aldetik: umorea, intrigea, kritikea, gure historiari begiradea eta kulturearen eta hizkuntzearen transmisioa izango dira, besteak beste, filmok har-  
tzean dituen gaietako batzuk.

### Euskerazko film laburrak

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dau Laburbira film laburren zirkuitu ibiltaria helburu bigaz: euskerazko sortzaileen kalidadezko lana ezetuten emotea, holan jarraitu dagien aukerea emonez; eta publikoa, euskeraz sortutako film barriakaz gozatu daitela. Zirkuituko filmak, gehie-  
nez, zirkuitua baino urte bi lehe-  
nago egindakoak izaten dira. Aurt-  
ten, *Zulo* izan ezik, beste guztiak 2017an egindakoak dira.



## BERTSOLARITZEA

# San Josetako Bertso Saioa

Uxue Alberdik, Miren Amurizak, Andoni Egañak eta Unai Iturriagak osotuko dabe aurtengo San Josetako Bertso Saioko kartela. Illart Gumuziok egingo ditu gai-jartzaile lanak.

### Erredakzioa

Hitzordua hilaren 18an da, San Jose bezperan, arrastiko 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean. Andoni Egaña zarauztarra eta beteranoena, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia lau aldiz jarraian irabazi dauan bertsolari bakarra da; 1993an, 1997an, 2001ean eta 2005ean, hain zuzen be. Idazle ezaguna be bada eta literaturan eta kazeta-  
ritzan esparru desbardinak landu ditu. Euskaltzain urgazlea da.

Uxue Alberdi Elgoibarkoa, bere bertsokaitik eta bere literatura lanakaitik be ezaguna da. *Aulkijokoa* (2009), *Euli-giro* (2013)

edo *Jenisjoplin* (2017) dira bere lanik ezagunenak. 2016an Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria irabazi eban, *Besarkada* izenburuko lanagaz. 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusian



finalaurrekora heldu zan.

Miren Amuriza, guraso bertsolari biren alabea, ezaguna da Bertsolari Txapelketa Nagusian eta Bizkaiko Txapelketetan parte hartu izanagaitik; baina baita, Berrian, eta beste aldizkarietan egiten dituan kolaborazioakaitik; edota musika taldeentzako egindako kantakaitik be.

Azkenik, Unai Iturriaga duran-  
garrak be ibilbide garrantzitsua egin dau bertsolaritzan, literatu-  
ran eta musikan. Bitan izan da Bizkaiko txapelkun eta Bertsolari Txapelketa Nagusietan, sei aldiz izan da finalista. Musika arloan, Igor Elortzagaz eta Josu Zabala-  
lagaz batera 7 Eskale eta Gu ta-  
gutarrak taldeak osatu ditu.

## KANTUA

# Kantuzaleak Zeanurin batuko dira hilaren 16an

### Erredakzioa

Arratia kantuz, arratiarrak kantetan batzeako egitasmoa martiaren 16an batuko da Zeanurin kantu biran ibilteko. 19:00etan izango da hitzordua plazan eta herrian

zehir ibiliko dira jai-giroan.

Arratia kantuz ekimenaren hel-  
burua, euskal kantu tradizionalak berreskuratzea, euskerearen era-  
bilera bultzatzea eta lagun-  
en artean ondo pasetea da. Horre-  
tarako, gitxi gorabehera, hilean

behin batzean dira Arratiako herri baten. Igaz, Areatzan, Diman, Igo-  
rren, Artean, Zeanurin eta Bedian batu ziran. Aurtengo bigarrena da Zeanurikoa, zezeilan hasi ziran Igorren-eta. Hurrengo zitea maia-  
tzaren 18an izango da Areatzan.

## DUNBA

# Gelako arauak

### Zeanuri HLHI 5. maila

Honeik dira gelako betiko arauak eta bosgarren mailan dira indartsuak.

Ezin da inor mindu ezta mesprexatu bestela adostokira joan beharko dugu.

Komunetik pasa ta sartzen da gelara lehenengoak garenez gu zintzoak gara.

Pasabide hauetan korrika ez egin ta ez inor bultzatu joatearren arin.

Iñor baztertu barik patioan gaude eta jolasorduan haserretu gabe.

Jantokira goaz gu gosez ta egariz zaintzaileen esana betez ta igariz.



5. mailako ikasleak.





## AGENDEA

MARTIAK 15  
ARRATIA

Apirilaren 2ra arte, Gurutze Gorriak antolatutako *Lehen sorospinak* ikastaroan izena emoteko epea. Igorreko Gurutze Gorriako lokalean.

## DIMA

Maiatzaren 4ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketean.

## IGORRE

20:00etan, Zinegoak 2018. Bilboko galesbitrans zine jaialdiko 5 film labur. *Zarpazo (Zartakoa)*, *Euritan*, *Happy (Zoriontsu)*, *Marguerite* eta *Szep Alak (Ibura ederra)* Lasarte Aretoan.

Apirilaren 10era arte, Jubiladuen alkarteak antolatutako Costa Bravara biajerako izen emotea. Egonaldia apirilaren 13tik 19ra izango da.

Apirilaren 13ra arte, Ganzabal Mendirik Mendi argazki erakusketean Kultur Etxean.

## LEMOA

Apirilaren 22ra arte bialdu daitezke lanak Lemoako VII. Narrazio Lehiaketara. Udaletxe edo [kultura@lemoa.net](mailto:kultura@lemoa.net) helbidera.

MARTIAK 16  
ARANTZAZU

18:00etan, Zabalik andra taldeak antolatuta, zaintzaren gaineko berbaldia Etxeko Langileen Elkartearen eskutik. Kultur Gunean.

## AREATZA

19:00etan, EAJ-PNVk antolatutako *Arratiarrakaz berbetan* zikloko Bingen Zupiriaren berbaldia eta mahai-ingurua: Klara Astondoa (AEK Arratia), Eneko Iza (Gorbeialde Irratia), Miren Urutxurtu (Irakaslea) eta Iratxe Goikoetxea (Errota Fundazioa). Udaletxeko erabilera askotako aretoan.

## BEDIA

18:15ean, Gangurenak antolatuta, Baqueira Beretara eskiatzera. Autobus geralekuan.

## DIMA

19:00etan, Komunikazio ez bortitzaren gaineko proiektzioa. Abaroa aretoan.

## IGORRE

20:00etan, Bilbao Mendi Film Festival-eko *Mama*, *Song for the Nomad*, *The Frozen Road* eta *Safety Third* filmak Lasarte Aretoan.

## LEMOA

*Landare aromatikoaren laborantza* eta *Argazkigintza: gorputza eta generoa* ikastaroetan izena emoteko azken eguna. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

## ZEANURI

19:00etan, Arratia kantuz.

## MARTIAK 17

## AREATZA

Independentzia Eguna 2018. Independentistak ek antolatuta, deiarar mendietara ibilaldiak. Gorbeia. 09:30ean, Areatzan; 10:00etan, Pagomakurren; 12:00etan, tontorrean.

10:00etan, Zugatz Eguna Pagomakurren, Eleiz portikuan batu. Meriendea Upomakatzan.

## DIMA

09:30ean, Dimako auzuneak ezagutz mendi martxea. Zamakola alkarte-artzubi-Muniba-San Migel txiki-Olazabal-Ugarana-Zamakola alkarte.

13:00etan, Dimetal Fest-erako argazkia plazan.

24:00etan, Rebel Folk taldearen kontzertua Ugatxa tabernan.

## IGORRE

Zugatz Eguna. 10:00etan, eskolako patioetik urtekerea; Larraganen zugatzak landatu eta ondoren kopaua.

17:00etan eta 19:00etan Arratiako Musika Eskolearen *Jostailuen gela* ipuin musikala Lasarte Aretoan. Irakasleen orkestra eta Kirikinusi eta Kantalai ume abesbatzakaz.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen

urtekerea. Erdella (682 m.).

## ZEANURI

Joko Alaik antolatuta, urtekerea sagardotegira.

## MARTIAK 18

## AREATZA

Gorbeia Parkeak antolatuta, ibilbide gidatua: neguan animaliak itxitako aztarnen bila Javier Fernandezek eskutik.

## DIMA

11:00etatik aurrera Igitiek antolatutako artisauek eta nekazari azokea. Bigarren eskuko azokea eta beste ekintza batzuk.

## IGORRE

19:00etan, San Josetako Bertso Saioa. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Unai Iturrigai. Gai-jartzalea: Illart Gumuzio. Lasarte Aretoan.

## LEMOA

Ganzabalek antolatuta, mendi urtekerea Galtzaga Buradon-Bastida. Toloño (1.227 m.).

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekerea. Kapildui (1.176 m.).

## MARTIAK 19

## IGORRE

17:30ean, jubiladuak antolatutako berbaldia *Iruzurrak eta segurtasuna*, Ertzaintzaren eskutik.

## MARTIAK 21

## ARRATIA

AEK-k antolatutako Ibinako zeharkaldian izena

emoteko atzen eguna. [praktikatu@aek.eus](mailto:praktikatu@aek.eus) helbidean edo [www.praktikatu.eus](http://www.praktikatu.eus) webgunean.

## ARTEA

18:00etan, Ekozinemaldia. *El otro lado de la tecnología*, *Frontera invisible* eta *Tipi-Tapa bagoaz*. Kultur Etxean.

## DIMA

*Bihotz birika bizkortze* ikastaroan izena emoteko atzen eguna.

## IGORRE

19:30ean, Igorren ebatzik antolatuta, M6ko itauna ebatzeko batzarra Kultur Etxean.

## MARTIAK 22

## DIMA

10:00etatik 15:00etara, BFAren autobusa, Aldundiaren gaineko informazioa, zerbitzuak eta programak ezetuten emoten. Udaletxe ondoan.

## IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Zaztaparrak Asti Taldearen udalekuetara joateko izen emotea Kultur Etxean.

19:30ean, Maddalen Iriareren berbaldia *Autonomiatik subirautzara* Kultur Etxean. EH Bilduk antolatuta.

## LEMOA

18:00etan, ipuin kontaketea eta Haur eta Gazteen XVI. Ipuin Lehiaketako sari banaketean Ludotekan.

## MARTIAK 23

## ARTEA

18:00etan, Ekozinemaldia. *Desierto liquido* eta *Caminando sobre los limites del abismo*. Kultur Etxean.

## DIMA

16:00etan, *Bihotz birika bizkortze* ikastaroa Osasun Zentroan.

## IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Zaztaparrak Asti Taldearen udalekuetara joateko izen emotea Kultur Etxean.

20:00etan, Laburbira Kultur Etxean. *Ilunpetan*, *Night Shift*, *Higadurak*, *Ejecutor*, *Tazan*, *Areka*, *Kreba*, eta *Zulo* film laburrak.

## ZEANURI

19:00etan, *Badaragoiogu* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean.

Hilaren 28ra arte, bistularien argazkien eta musika tresnen erakusketean udaletxe azpian. Zeanuriko bistularien 50. urteurrena.

## MARTIAK 24

## AREATZA

09:00etan, AEK-k antolatuta, Ibinako zeharkaldia, bertsolariak girotuta. Pagomakurretik urtenda.

19:30ean, Laburbira udaletxeko Areto Nagusian. *Ilunpetan*, *Night Shift*, *Higadurak*, *Ejecutor*, *Tazan*, *Areka*, *Kreba*, eta *Zulo* film laburrak.

## ARTEA

20:30ean, Deiedra Rebel Folk taldearen kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.

## BEDIA

IV. Kolazinoko Mendi Eguna. Ikusi egitaraua 10. orrialdean.

## IGORRE

Enaik eta Orratzak-ek antolatuta, Arratiako Gazte Egun Feminista Kiñu Gazteboxean. 10:30ean, esnatze jolasa eta aurkezpena; 11:00etan, Fatima Galia Mohamed Salem-en berbaldia andra sahararren egoeraren gainean; 12:30ean, Ibai Fresnedo *Sexue eta pornoa: zelan bizi doguz gazteok?*; 14:30ean, gazte bertso bazkaria Malen Amenabar eta Nerea Ibarzabalegaz, 17:00etan, Bizkaiko talde feministen topaketea; 18:00etan, poteo feministea herriatik; 21:00etan, FeminHaziak dj-a; 22:30ean, ekitaldi feministea.

20:00etan, *Etxeko saltsak* antzezlan Lasarte Aretoan.

## ZEANURI

09:30ean, Gorbeia jubiladuen eta pensionisten alkarteak antolatuta, mendi ibilaldia. Plazea-Soloeta-Itsuna-Asterria-Plazea.

## MARTIAK 25

## IGORRE

17:00etan, zinea *La rebelión de los cuentos*; 19:30ean, zinea *La forma del agua* Lasarte Aretoan.

## ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, urtekerea Zierbenara PR BI220.

## MARTIAK 26

## ARTEA

08:00etatik 22:00etara, Foru Aldundiko autobusa Aldundiaren zerbitzuak azaltzeko. Eskola aurrean.

## IGORRE

10:00etatik 15:00etara, Orientazio saioa. Beharbidetara 2018.

## ZEBERIO

Foru Aldundiko autobusa Aldundiaren zerbitzuak azaltzeko.

Jon Braun titere antzezlanaren  
Igorreko Lasarte Aretoan

Anita Maravillas eta Portal 71 konpainiak *Jon Braun* titere antzezlanaren eskeiniko dabe Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan martiaren 31n, arrastiko 18:00etan. Lau urtetik gorako umeentzat da egokia eta zoritxarren aurrean maitasunak emoten deuskun ausardiak egiten dau berba. Anita Maravillas konpainiak titereen hizkuntza ikerketa, estetika zaindua eta umorea buztartzen ditu bere lanetan. Oingo honetan Jon Braun, Imanol Urbietaren abestiko indio ezaguna aukeratu dau neba-arreben arteko loturaz berba egiteko, abenturaz eta maitasunez betetako western honetan.

Ivan Alonsoren zuzendaritzapean, Miren Larreak eta Valentina Raposok antzezle lanetan jardungo dabe.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimentu guztia egunean eroandakoa, garajeen aparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

## AUTOA SALGAI

Nissan Terrano II 2.7. Motorra egoera onean, remolkearentzako boleagaz, 3 ate eta 232.000 kilometro. 1999 urtekoa. Telefonoa 628 041 526.

## BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

## DANERIK

## LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632 159 270 telefonora.

## ETXEA ALOKAIRUAN

Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz eta gasagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

## JATETXEA ALOKAIRUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimentu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Etxeko saltsak* antzezlanerako.

Karme Angoitia (Zeanuri)  
Ainara Aranzeta (Areatza)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Jon Braun* antzezlanerako.

Kepa Perez Urraza (Zeberio)  
Jurek Ziemkiewicz (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.



# DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

## EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Sorrera. 2.- Itsasontzi. 3.- Erdiko bokala. Inesiboan, aldean, inguruan. Bokala. 4.- Zuhur. Oinarrizko lau odol taldeetako bat. 5.- Azterketa. 6.- Andrai dei egiteko hotsa. Azkar. 7.- Bokala. Apurtuaren onomatopeia. Konsonantea. 8.- Zati. 9.- Nagusitu.


## GOITIK BEHERA

1.- Hizki mutua. Abizen aurretik. Konsonantea. 2.- (Atz.) Barioa. Zatririk falta ez jakona. Umeen berbetan, mosua. 3.- Moltsoa. Birritan, barre-algararen onomatopeia. 4.- Karikatura. 5.- Eguzki. Andrazkoen izena. 6.- Errutenioa. Birritan, umeen berbetan, ibili. Errepetiduta, kontuz. 7.- Bokala. Arraunean egin. Uranioa.

U	I	L	V	A	R	V	A	R	C	6
E	T	E	P	A	R	P	A	R	8	
I	K	R	A	K	O	N	9			
N	I	R	O	N	9					
V	N	I	A	M	S	E	5			
B	N	O	L	I	Z	4				
A	I	R	I	3						
U	B	A	R	K	U	2				
A	H	A	S	I	E	R	A	1		
7	6	5	4	3	2	1				

Topau zazpi labore edo zereal motaren izenak.

T	X	A	R	I	S	O	L	E	A
X	Z	I	A	R	T	O	A	K	I
U	L	E	B	A	R	R	I	P	A
M	I	A	K	U	D	A	R	G	B
E	N	B	I	A	G	I	M	A	Z
T	D	E	M	A	L	J	O	R	E
S	O	L	O	K	O	E	B	I	A
U	K	A	G	E	R	I	A	A	L
G	A	M	A	R	A	N	T	O	A
D	E	K	I	O	M	A	A	P	U
I	K	U	N	L	A	S	O	R	A
F	E	I	G	A	R	O	L	T	N
U	K	A	R	A	N	E	O	U	Z
A	R	R	A	G	A	R	A	G	I
B	E	M	I	L	O	R	T	X	O



Agirre Lehendakari, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonos: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKEITEGIA  
GAY & LORA  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnos 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96 Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54


L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnos.: 94 673 61 25

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

Kameta eskola ez zela onduz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonos 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: vnozulu@euskatel.net



# SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU



Basoak garbitzeko makineria



## ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

# ALKIZABAL

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDIETA ETA INDUSTRIARAKO  
MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BOLUNBURU POLIGONOA  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

